

# IRUÑEKO EMAKUMEEN ETXEA SORTZEKO PROZESUAREN LAUGARREN SAIOA

Plazara!, 2018ko maiatzaren 13a. 18:00 – 20:30.

## 1. Saioaren aurkezpena eta **papiro kilometrikoaren** ariketa

Gai zerrendaren berri eman zen, laburki. Papiro kilometrikoa sortzea proposatzen zaie, haien izenak idatzita, hartara ikusarazteko lau saio hauetan 60 emakumek parte hartu dutela, saio bakoitzeko batezbestekoa 27 izan bada ere.

## 2. Emakumeak eta emakumeen kolektiboak identifikatzeko **puzzlearen** ariketaren errepasoa.

Berriz ere egiaztatzen da zenbait talde ez daudela ordezkaturik. Hainbat emakumek talde horietako emakumeekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartzen dute, datorren bileran haien ikuspegia txertatu ahal izan dezaten gai-paneletan.

## 3. Emakumeen Etxea martxan jartzeko **gai nagusien gaineko adostasuna.**

Paneletako edukiak landu ahal izateko taldeak eratu ziren berriz ere. Bost gai landu ziren. Zerbitzuei buruzko gaia kanpoan utzi zen, Udalak laster zerbitzuen inguruan abiatuko duen proiektua azaltzeko. Gaietako hiru denon aurrean aurkeztu ziren.

### 1. Filosofia

Gai honen inguruan adostasun zabala dago, guztion artean eraikitako zerbait da eta horregatik badu bere balioa, eta horrek oinarri mugiezina izan behar du.

Honako gai hauei buruzko eztabaida zabalik da:

Etxea Iruñeko beharrak asebetetzeko egongo da bakarrik zabalik ala Nafarroa osokoak aintzat hartuko dira?, Iruñeko Udalak soilik finantzatu du edo Nafarroako Gobernuak ere finantzatu ahalko du? Nola parte hartuko dute Etxean Nafarroa osoko elkarteek?

### 2. Jarduerak eta programak

Aurretik ere landutako jarduera eta programa ugari aipatzen dira. Eztabaida pizten da Emakumeen Etxean gizonen parte-hartzearen inguruan. Eztabaida hori zehaztu eta itxi beharko da. Gizon izatea zer den galdetzen da. Autoestimua indartzeko jarduera gehiago behar direla ikusten da, bai fisikoak bai psikikoak, eta ahalduntze-eskola bat. Ospakizunetarako toki bat izatea era garrantzitsutzat jotzen da.

### 3. Kudeaketa-eredua eta funtzionamendua

Etxea kudeatzeko espresuki sortutako elkarte batek eta Udalak elkarrekin kudeatzea proposatzen da eredu gisa. Udalak, Etxeko lantalde teknikoa finantzatu eta kontratatuko du. Elkarteak independente izan beharko luke. Elkarteari, haren funtzioari eta abarrei buruzko hainbat galdera sortu dira. Gehiago zehaztu eta espezifikatu beharko da.

4. Guneak eta baliabideak
5. Finantzaketa-eredua

Azken bi puntu horiek landu egin ziren, baina ez ziren denon aurrean azaldu denbora faltagatik. Hurrengo saioan lantzen jarraituko dira.

Adostutako eta eztabaidatutako guztia sei agiritan bildu da, zeinak hurrengo saioetan lantzen jarraituko baitira, eta eranskin moduan bidaliko zaizkie parte-hartzaileei.

4. Etxea abiatzeko **erabil daitezkeen eraikinen** aurkezpena.

Berdintasuneko teknikarietako batek hiru eraikini buruzko informazioa aurkezten du: kokapena, tamaina, epeak eta birmoldaketaren kostua. Eraikinetara bisita egitea proposatzen da.

5. **Iruñeko Berdintasun Gunearen** aurkezpena.

Berdintasuneko teknikarietako batek azaldu zuen Udala paraleloki Berdintasun Gune bat diseinatzen ari dela, erakundeak emakumeei eman behar dizkien zenbait zerbitzu eta beharretatik abiatuta: aholkularitza juridikoa, lanekoa, psikologikoa eta sexologikoa, eta emakumeentzako informazio orokorra. Oro har, taldeak ongi ikusten du proposamena.

6. **Ebaluazioa** eta amaiera

Ebaluazio gisa, esku guztiak batu ziren, mendi bat eraikita. Hori horrela, denon artean honako hau utzi zen saioan: emakumeendako gunea, pazientzia, ilusioa, zalantzak, eraikiko dugula ziur izatea, adostasuna, motibazioa, etab.

